

TXORIERRIKO EKONOMIA ZIRKULARRAREN AZELERAZIOA

Posted on 02/09/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Enpresa zirkularrak](#), [Eskualde lehiakorak](#)

Egaz Txorierrik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta lhoberen babesarekin, Txorierriko lurraldean ekonomia zirkularra azeleratzeko prozesu integrala abian jarri du, bereziki industria, zerbitzu osagarriak, merkataritza, garraio eta logistika sektoreetan arreta jarriz. Naiderrrek, teknika laguntzaile gisa, metodologiaren diseinuan lagunduko du prozesua gidatzen, diagnosiaren hasieratik azken jardunaldia dinamizatu arte.

Proiektua hainbat fasez osatuta dago, eta hasiera batean, Txorierriko enpresa ehunaren diagnostiko zehatza egingo da, zirkularitatearen ikuspegitik. Potentzial handiena duten enpresei inkestak egingo zaizkie, eta ondorioen txostena prestatuko da. Hasierako fasea jardunaldi batekin amaituko da, bertan emaitzak partekatuko dira, eta enpresen arteko sarea sustatuko da. Horrez gain, ekonomia zirkularrari eta jasangarritasunari buruzko lan talde interempresarial bat abiaraziko da.

Naiderrrek funtsezko papera jokatzen du proiektuaren diseinuan eta gauzatzen, eta hurrengo faseetan tokiko enpresa parte-hartze aktiboa bermatzen du. Azken helburua proiektu pilotoak eta laguntza teknikoaren ekintzak martxan jartzeko oinarriak ezartzea da, Txorierri ekonomia zirkularrean erreferente bihurtuz.

